

2014. urteko txostena

Elkarrekin ibili direnen  
oinatzak ez dira sekula ezabatzen

## Bulegoak

Madariaga etorbidea 69  
Beheko solairua  
48014 Bilbao

Madalena Jauregiberri pasealekua, 2  
851 P.K.  
20080 Donostia/San Sebastián

Tel.: 944 757 643  
Faxa: 944 750 151  
info@elkarbanatuz.org  
www.elkarbanatuz.org

## Zentroak

### BAIKABA

Madariaga etorbidea 69  
Beheko solairua  
48014 Bilbao  
Tel.: 944 474 499  
Faxa: 944 750 151  
baikaba@elkarbanatuz.org

### HAZTEN

Madariaga etorbidea 81, atzeal-  
dea  
(Sarrera, Mongan kalea)  
48014 Bilbao  
Tel.: 946 426 447  
Faxa: 944 750 151  
hazten@elkarbanatuz.org

### HIRANKA

Blas de Otero 39  
(Sarrera, Arenazako leizea  
kalea)  
Bilbo 48014  
Tel.: 944 764 136  
Faxa: 944 765 398  
hiranka@elkarbanatuz.org

## Laguntza-baliabideak

### OINEZ SAREA

Gerizpe (Getxo)  
Barakaldo  
Bidean (Bilbo)  
Ganeko (Bilbo)  
Ondoan (Bilbo)  
Algorta I  
Algorta II  
Arangoiti (Bilbo)

### ONDOAN: Bilbo

### BIDANKA

Ollargan  
Galdakao  
Santurtzi



# aurkibidea

- Eskerrak 2
- Aurkezpena 3
- Nor gara 4 - 5
- Egoitzetako esku-hartzearen arloa 6 - 7
  - Lan- eta lanbide-heziketaren arloa 8 - 9
    - Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa 10 - 11
    - Nazioarteko lankidetzak 12
    - Gizarte-partaidetza 13
      - Lankidetzak-sareak 14
      - Komunikatzeko bideak 15
        - Administrazioaren eta jarraipen ekonomikoaren arloa 16 - 17
        - Urteko kontuak 18 - 19
        - Izan gure laguntzaile 20



# Eskerrak

Esker ona adierazi nahi diegu 2014. urtean lagundu diguten pertsona eta erakunde publiko eta pribatu guztiei:

## LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak - FSC

## ERAKUNDE PUBLIKOAK



Bilboko Udala Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Saila



Bizkaiko Foru Aldundia Gizarte Ekintza Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia Gizarte Politikarako Departamentua



Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila  
Gizarte Politiketako Sailburuordetza



Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila  
Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua

## ENTITATE PRIBATUAK



Fundación Antonio Menchaca de la Bodega



Carmen Gandarias fundazioa



Educo fundazioa

Fundación Escuela Nuestra Señora del Rosario



Victor Tapia eta Dolores Sainz Fundazioa



Bankia



"La Caixa" Gizarte Ekintza



Caixa Proinfancia Programa



Caixa Incorpora Programa

Orobat adierazi nahi diegu esker ona lagundu diguten bazkide, kolaboratzaile eta boluntario guztiei.

13-16 plan estrategikoaren bigarren urtea amaitu dugu. Gure planaren erdia burututa, aldaketa batzuk izan ditugu, onerako, eta asko izan dira gure laguntza jaso dutenak.

Aldaketa horiek gehien izan dituen arloetako bat egoitza-interbentzioaren arloa da; izan ere, zenbait urtez funtzionatu ondoren (bere proiektuetako batzuk Elkartek bultzatutako lehen proiektuak dira), baztertuta edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gizarte- eta hezkuntza-beharrizanetara egokitu da. Hori horrela, gazteei laguntzeko egoitza berri bat zabaldu du. Horrela, gure lehen proiektua izan zena, Ondoan, garrantzi handiko proiektu bihurtu da, baztertuta edo bazterketa-arriskuan dauden neska gazteei zuzendua; izan ere, orain arte ez dugu haiekin lan egiteko aukerarik izan. Ahalegin eta erronka handia da hori gure erakundearentzat.

Lanerako prestakuntzaren arloak irmo jarraitu du lanean, eta prestakuntzen eta bitartekaritzen kopurua eta, jakina, lortutako lan-aukeren kopurua handitu dira horri esker. Arlo horrek lehentasuna izaten jarraitzen du une honetan, oraindik krisiak bere horretan dirauelako gure inguruan.

Haurtzaro, familia eta lehen mailako laguntzaren arloak kalitatezko lana egiten jarraitu du adingabeekin eta beren familiekin, prozesuetan inplikaturako eragileekin hobeto koordinatuta sarean lan egin baitu.

Azkenik, aurtengo funtsezko elementu bat hau izan da: ARLEP Barrutiko La Salle Hezkuntza Sarearen gizarte- eta hezkuntza-arloetako inplikazio handiagoa eta sarean egindako lana. Elkarbanatuzen identitate, koordinazio eta sareko lanaren eremu honetan egiten ari garen lanak eragina izango du, zalantzarik gabe, gure inguruan bazterketa edo bazterketa-arriskua pairatzen duten pertsonen onerako, eta arreta berezia eskaintzen diegu, gainera, haurrei eta gazteei.

Instituzio-arloan, 2014. urtean, Zuzendaritza Batzordean, gizarte-oinarri osoarekin elkarlanean, duela hiru urte erabakitako antolamendu-prozesuen azterketa amaitu dugu, eta 2015ean Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza abiarazi dugu.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordeak bene-benetan eskertzen dizue zuen dedikazioa, zuen ahalegina, zuen bitartekoak, zuen ilusioa eta zuen bokazioa gizarte bidezkoagoa eraikitzeko elkarrekin.

**Zuzendaritza Batzordea**


# Nor gara

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.


Onura publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu.

Oinarri sozial sendoa du, 76 bazkide eta laguntzaile baino gehiago eta 78 boluntario dituen aldetik. Horien guztien bidez gauzatzen da elkarte-proiektua.

Lantalde profesionala du Elkarbanatuz elkarteak, 35 pertsonak osatua. Horietatik, 28 emakumezkoak dira, eta 7 gizonetzkoak.



2014. eta 2015. urteetan, honela osatu da zuzendaritza-batzordea eta zuzendaritza-taldea:



## Etorkizuneko urratsak:

### Misioa

La Salleren hezkuntza-misioan parte hartzen du Elkarbanatuz elkarteak, eta lanean ari da gizarte bidezko bat eraikitzeko, gizarte-aldaketaren bidez eta gizarte-egoera ahulean daudenei gizarte-heziketako laguntza emanez.

### Ikuspegia

Gizarte-erakunde salletar eraldatzailea izatea, erreferentziazko lana egingo duena egoera ahulean dauden pertsonekin gizarte-heziketako lana egiten.

2014. urtean,

# 1200

personak hartu du parte gure programetan

# 500

personak baino gehiagok hartu du parte zuzeneko laguntza-prozesuetan

# 700

personak baino gehiagok hartu du parte sentsibilizazio-ekintzetan



# Egoitzetako esku-hartzearen arloa

Arloa bi programa motek osatzen dute: emantzipaziorako egoitzetako programek eta gizarteratzeko egoitzetako programek.

2014. urtean, egoitzetako esku-hartzearen arloak aldaketa batzuk izan ditu bere programetan, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen egoitzei, gizarteratzeari eta hezkuntzari dagokienez dituzten beharrietara ahalik eta kalitate eta doitasun handienaz egokitzeko.

Neska gazteentzako oso laguntza-baliabide indartsua jarri dugu abian egoitzetan; bertan, diziplina anitzeko hezitzaile talde berri bat izango da, gizarteran baztertuta edo bazterketa-arriskuan dauden emakume gazteekin gizarter-hezkuntzan lan egiteko motibatuta eta prestatuta dagoena. Bestalde, Oinez programako lekuak doitu ditugu, beharrian berrietara egokitzeko.

## 2014ko Eraitza Nagusiak

Batzarrak, konpromisoak eta adostasunak lortuz, eguneroko gatazkak eztabaidatu eta konpontzeko heziketa-gunea.



59 pertsona jaso dira arloan.

Pobrezian eta Gizarte Bazterketan dauden pertsonen EAPNko Estatu-mailako Topaketan parte hartzea.

Ondoan: emakumez osatutako lantaldea, emakumeentzat eta emakumeen alde lan egiten duena.



Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzen dugu.



Beren prozesuak amaitzen dituzten pertsonen % 82k helburu guztiak betetzen dituzte.



Bidankaren erabiltzaileen % 100k positiboki balioesten ditu jarraipen pertsonalak.

2014an, 900 bisita egin dira egoitzetako baliabideetara.







### Oinez – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

2014ko ekainera bitartean, 8 egoitzek osatu dute sarea; guztira 36 leku izan dira. 2014ko ekainetik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Mundutik Mundura programan, Oinez programa laguntzaile duela, lekuak berregokitu egin dira, eta orain 4 egoitza daude, bakoitza 5 tokirekin; beraz, guztira 20 leku daude.

Aurten, genero-indarkeriaren prebentzioa egiteko jarrerak lantzeko jarduerak egin ditugu; horretarako, lantegiak eta solasaldiak antolatu ditugu, eta oso partaidetza aktiboa izan dute bertan mutil gazteek. Bestalde, saiatu gara beren prozesuen baitako partaidetza eta programakoa gero eta sistematizatuagoa eta normalizatua izan dadin.



### Ondoan – Gazteak emantzipatzeko egoitza-programa

Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren HELDUZ gazteen emantzipazio-programarekin kolaboratzen du. Intentsitate Handiko etxebizitza babestuzat kalifikatutakoarekin. Egoitza babestu bat behar duten neska gazteentzat da, garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia izan dezaten.

Bizimodu autonomia izateko nahikoa baliabiderik ez duten gazteak dira. Hezitzaileen laguntza behar dute gizarteratzeko prozesuan aurrera egin dezaten, beste baliabide batzuekin batera koordinatuta, norberaren beharrezan araberak (oinarrizko prestakuntza, lanerako lantegiak, enplegua bilatzea, lana...).

2014ko ekainean ilusioz ekin genion proiektu berri honi.



### Bidanka – Gizarteratzeko egoitza-programa

Bidanka egoitza-baliabideen sareak 3 etxebizitza ditu Bizkaian, eta horietako bakoitzak gizartean baztertuta edo bazterketa-arriskuan dauden 4 pertsonarentzako lekua dauka. Programa Bizkaiko Foru Aldundiaren ALDEBARAN programaren baitan sartzen da.

2014an Bidankan egin dugun banakako eta taldeko laguntzan, erabiltzaileekin sentsibilizazio-lana egin dugu batik bat, lantegi eta jardueren bitartez hainbat gai jorratuz: egoera bidegabean aurrean posizio kritikoa hartu eta salaketa egitearen garrantzia, gure inguruko sareak mobilizatzearen garrantzia, eta bestelako mundu bat posible delako kontzientzia hartu eta horren alde lan egitea.

# Lan- eta lanbide-heziketaren arloa

Egoera ahulean dauden pertsonen bizimodua hobetzera eta lana aurkitzeko aukerak handitzera bideratzen dugu gure arloko lana, eta, prestakuntzaren eta lan-orientabidearen bitartez, laguntzaile garen partaidetza-prozesuetan esku hartzen dugu.

Lan hori gure inguruko enpresen bitartekaritzaren bidez osatzen dugu. Izan ere, hurbileko eta etengabeko laguntzaren bidez, beren enplegu-beharrizanak kudeatzera bultzatzen ditugu, gure proiektuetan parte hartzen duten pertsonen bizi-baldintzak duinagoak izan daitezzen.

## 2014ko Emaitza Nagusiak



Incorpora  
Prestakuntza  
Gunea gara.



Hiranka-n` presentzia  
aktiboa duten  
emakumeen  
kopuruak gora egiten  
jarraitzen du; orain 21  
daude.



Autoenplegurako  
prestakuntza  
finkatu egin da  
gure prestakuntza-  
ekintza guztietan.  
3 proiektu burutu  
dira.

Haztenekin  
lankidetzan  
aritu dira  
Ostalaritza eta  
Turismoaren  
sektoreko 2  
enpresa, eta  
enplegatzaile  
gisa dituzten  
beharrizanen  
berri eman  
diete ikasleei.



Lan-  
orientabideko  
jarduerak  
eskaintzen  
dizkiegu gure  
entitatearen  
erabiltzaileei.

Gure proiektuen  
erabiltzaile ohien  
partaidetza finkatu  
da.



Hazten-en  
prestatutako  
pertsontzako  
58 praktika-  
postu kudeatzea  
lortu dugu, 31  
enpresatan.





### Hiranka – Gizarteratze Zentroa

Hiranka Gizarteratze Zentroa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin elkarlanean, egoera ahulean (neurri batean edo bestean) dauden pertsoneri gizarte eta hezkuntzako laguntza osoa ematen dien baliabidea da, gure inguruko beste baliabide batzuekin batera. Gure helburua da bertara etortzen direnen gizarteratze-prozesuak sustatzea, haien egoera eta gizarte-partaidetza hobetzeko.

Prozesu bakoitzaren hasieratik, pertsonen beren prozesuen plangintzan, garapenean eta ebaluazioan parte har dezaten sustatzen dugu, hori funtsezkoa baita beren Laguntza Indibidualen Planetan ezarritako helburuak lortzeko.

### Aurkibide - Gizarte- eta lan-orientabiderako bitartekaritza-zerbitzua

Gure laguntza jasotzen duten pertsonen, lan bat eskuratzeko zailtasunak dituztenen alegia, beren esperientziaren eta prestakuntzaren arabera enplegu duin bat aurki dezaten egiten dugu lan.

Horretarako, banakako ibilbideak diseinatu laguntzen diegu pertsoneri, eta enplegua errazago lortzeko egin ditzaketek ekintzei buruzko aholkuak ematen dizkiegu.

Aldi berean, enpresetara jotzen dugu, haien lan-eskaintzen kudeaketa eskaintzeko eta, halaber, beren lan-profiletan eskatzen dutena ezagutzeko, horrela haien benetako beharrezkoen arabera aholkularitza egin ahal izateko.

Hori guztia La Caixaren Gizarte Ekintzaren Incorpora lan-integrazioarako laguntza-programan parte hartzen duen entitate gisa egiten dugu.



### Hazten – Lanerako Prestakuntza Zentroa

Gure zentroan ematen dugun prestakuntzaren bitartez, Ostalaritza eta Turismoaren arloan espezializatuta (I. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriak oinarri dituela) eta Prestakuntza eta Lanerako Orientabidea eta Autoenplegua zerbitzuez osatuta, 90 pertsona baino gehiagok lana errazago eskuratu ahal izatea lortu dugu, 6 prestakuntza teorikoren eta enpresetako 5 prestakuntza praktikoren bitartez (guztira, 6.000 ordu inguru).

Aipagarria da ikasleek enpresetarako bisitei eman dieten garrantzia, lanaren egunerokoa erakusten baitute, eta halaber enpresek zentrori egindakoei eman dietena, kontratatzen dituzten pertsonengan zer bilatzen duten azaltzen baitute, besteak beste.

Aurten hainbat kolaboratzaile izan ditugu: Lanbide (Enpleguaren Euskal Zerbitzua), La Caixaren Gizarte Ekintza eta Bankia.





# Haurtzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa

Haur eta nerabeei laguntzea du helburu; hezkuntza-indargarria ematen eta aisialdirako alternatibak eskaintzen ditu, eta, aldi berean, Laguntzako Plan Indibidualak egiten ditu. Familia-egoera hobetzea da asmoa; horretarako, beharizanetan aldiroko aholkularitza ematen du eta familiaren baitako elkarbizitzarako tresnak indartzen ditu, gurasotasun positiborako prestakuntza eskainiz.

Era berean, entitatera hurbiltzen diren pertsonen harrera eta balorazioa egiten ditu, eta dagozkien zerbitzu/programetara edo zentroetara bideratzen. Halaber, lagundu egiten die haien gizarte- eta hezkuntza-prozesuan dokumentazioa eskuratzen eta oinarrizko beharizanak betetzen.

## 2014ko Emaitza Nagusiak



65 hurrek hartu dute parte udalekuetan.



717 pertsonak hartu dute parte sentsibilizazio-ekintzetan.



225 pertsona igaro dira harrera-programatik.



233 pertsonak jaso dute laguntza (horietatik 104 adingabeak dira).

250 pertsonak baino gehiagok jasotzen du arloko zuzeneko laguntza

78 pertsonak borondatezko laguntza eman dute

Pertsonak hezkuntza-prozesuetan inplika daitezten eta, halaber, aisialdiko jardueretan parte har dezaten sustatu da.





### Baikaba – Haurrentzako eta familientzako gizarte- eta hezkuntza-zentroa

Haurrekin eta haien familiekin gizarte- eta hezkuntza-lana egiten dugu, hauen babesarekin: La Caixaren Gizarte Ekintza, entitate horren CaixaProInfancia(1) programaren bitartez, La Salleren gizarte- eta hezkuntza-ekintzak eta EDUCO. Azken urte honetan sareko lana indartu nahi izan dugu, prozesuetan inplikaturako eragileak hobeto koordinatuta: zerbitzu psikologikoa, logopedia eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak. Ikastetxeekin harreman estuagoa izatea ekarri du horrek; izan ere, elkarlanerako akordioak sinatu dira, eta truke eta lankidetzarako formulak sortu dira horrela, hezkuntza-prozesuan hobeto laguntzeko.



### Harrerarako eta gizarte- eta administrazio-jarraipenerako zerbitzua

Elkartera lehen aldiz datozen pertsonen beren egoeraren analisia, diagnosis eta balorazioa eginez egiten diegu harrera. Kasu balioetsita, gizarteratze-prozesurako egokitzat jotzen den zentro/ programa/zerbitzuan parte hartzea proposatzen zaie. Era berean, erabiltzaileen gizarte- eta administrazio-beharrizanen jarraipena egiten dugu, eta bizimodu duin baterako beharrezkoa dena lortzen laguntzen diegu.



### Laguntzak kudeatzeko zerbitzua

Erabiltzaileen gizarteratze-prozesuen jarraipena bultzatzea da helburua; horretarako, oinarrizko beharrezkoak betetzen laguntzen diegu, laguntzak emanez elikadura, higiena, jantziak, identifikazioa, betaurrekoak edo premiazko hortz-tratamenduak izan ditzaten.

Elkartearen erabiltzaileen beharrezkoak eta eskaerak bideratzen ditu zerbitzuak; kasu bakoitzaren azterketa ekonomikoa egiten du, eta jasotako laguntzaren erabilera egokiaren jarraipena.

Carmen Gandarias Fundazioa, Victor Tapia Fundazioa eta Antonio Menchaca de la Bodega Fundazioaren laguntza izan dugu.



### Sentsibilizazio-programak

Gizarte-sentsibilizaziorako ekintzak egiten ditugu, gure lanaren xede diren kolektiboen errealitatearen berri emateko. Kontzientzia kritikoa bilatzen dugu, eta parte hartzea eta gizarte-konpromisoa hartzea gonbidatzen dugu. Elkartasunaren ikuspegi globala sartu dugu, Garapenerako hezkuntzaren zeharkakotasunaren bitartez. Deustuko "Zurrumurruei kontra" proiektuan parte hartu dugu, immigrazioari buruzko estereotipo, topiko eta zurrumurru faltsuei aurre egiteko gizarte-eragile gisa, eta, halaber, lantegiak egin ditugu ikastetxeetako ikasleekin, gizarteratzeari eta giza eskubideei buruz.

(1) Programaren helburua da gurasoengandik seme-alabengana transmititzen den pobrezia zirkulua haustea, kalitatezko hezkuntzarako aukerak bermatuz, eta eskola-errefortzua, laguntza psikologikoa, hezkuntza formala eta aisialdia, eta gurasotasun positiborako jarraibideak eskainiz, bestelako laguntzez gain.

# Nazioarteko lankidetzaz



Elkarlanean jarraitu dugu gizarte-, hezkuntza- eta garapen-erloto nazioarteko proiektuetan. Proiektu horiek helburutzat dute gure proiektuei lotutako haurrek eta gazteek pairatzen duten injustizia-egoerak aldatzea.

Aurten, Bilboko Udalaren laguntzaz, Garapenerako Hezkuntzako prestakuntza-aldi bat amaitu dugu Esku-hartze Sozialean, gizarte- eta hezkuntza-lan kritikoa eta eraldatzailea egiten jarraitzeko. Herritasun globalaren kontzientzia hartzera bideratzea da asmoa, bazterketaren eta pobreziaaren aurkako borrokan jarrera arduratsua sustatuz.



Baztertuta edo bazterketa-arriskuan dauden kolektiboekin lan egiten dugunez, pobreziaaren kausei buruz sensibilizatu eta denak barne hartzen dituen gizartea lortzeko lan egiteaz gain, gizarte-partaidetzara, salaketa egitera eta eskubideak aldarrikatzera bideratzen da gure jarduna.



Lan horren baitan, Garapenerako Hezkuntzak informazioa, hausnarketa, kontzientzia hartzea eta eraldatzeko ekintza sustatzen ditu, berdintasuna eta gizarte-justizia bilatuz betiere.



Proyde Madrid-ek emandako prestakuntzari esker, GHren arloak lantzeko eta zeharkako egiteko gako batzuk ekarri eta sakondu ditugu, horrela ekintza berdinzale eta eraldatzaile batzuk planteatzeko. Landutako gai batzuk hauexek izan dira: zer da Garapenerako Hezkuntza, Justizian eta Elkartasunean Hezitzea, Nazioarteko Boluntariora, Bidezko Merkataritza, Banka Etikoa eta Gizarte Eragina.



# Gizarte-partaidetza



## Elkarbanatuz Elkartearen IX. Jardunaldiak

Azken jardunaldietan, boluntario izatera zerk eramaten gaituen gogoratu eta birplanteatu nahi izan genuen, eta boluntariotza kudeatzen duten pertsonak ekarri. "Zergatik izan nahi dugu boluntario? Esparru teorikoa eta esperientzien aurkezpena" izenburupean, Madrilgo La Salle Unibertsitate Zentro eta Complutense Unibertsitateko Teresa de Jesús González izan genuen gurekin, eta bizitzari beste modu batez begiratzera gonbidatu gintuen, "boluntariotzaren ikuspegitik" alegia. Gainera, hainbat entitatek, hala nola La Salle Bilbao Ikastetxeak (Iñaki Goikoetxea) eta Proyde-Proegak (Idoia Azpilicueta), eta Elkarbanatuzek (Miren Méndez) gure inguruan Eusko Jaurlaritzaren babesaz urtero egiten dituzten proposamenen berri eman genuen.



## La Salleren Gizarte- eta Hezkuntza-Lanen III. Topaketa

Hirugarren aldiz, Madrilen elkartu ginen 16 lan desberdinetako 50 pertsona baino gehiago, ezagutza, prestakuntza, esperientziak eta praktika egokiak trukatzeko espazioan. Hauek dira jorratu genituen gaietako batzuk: Gizarte Eraldaketan La Sallek izan duen partaidetza, pertsona erdigunean jartzea koherentzia gisa, adingabeekin egiten den lana, boluntariotza-esperientziak, erabiltzaileen partaidetza eta prozesuen kalitatearen kudeaketa.



## Jardunaldi hauetan parte hartu dugu

- Pobrezia eta Gizarte Bazterketa jasaten duten Pertsonen Partaidetzari buruzko Topaketak, EAPN Euskadik antolatuta.
- Pobrezia eta Gizarte Bazterketa jasaten duten Pertsonen Partaidetzari buruzko Topaketak, EAPN Murciak antolatuta.
- "Salletarrak krisian" jardunaldia: Pobreziaren eta konpromisoaren errealitatea" La Salle Bilbao.
- Harresiak Apurtuz-en agerraldia Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Herritarren Partaidetzaren Batzordean.
- Eusko Jaurlaritzaren Adierazpen Instituzionala, Pertsona Migratzaileen Eguna dela-eta.
- Euskadiko etxebizitza-bazterketari buruzko I. Jardunaldiak. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak eta hiru udalek antolatuta: Bilbo, Donostia eta Gasteiz. Donostia
- Tratu txarrak jasotako haurrei buruzko XII. Nazioarteko Kongresua eta Justizia eta Haurtzarolari buruzko VII. Foroa. Antolatzaileak: FAPMI, ECPAT España, AVAIM, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza, DFB eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioa. Bilbo.
- Jardunaldiak: Gizarte desiragarri baterako posiblea den ongizatea. EKAIN SAREA. Bilbo.
- "Gardentasuna, informazio publikorako sarbidea, eta gobernu egokia Gizarte Lanean- GIZARDATZ". Jardunaldia. Bilbo.



## Komunitatean parte hartzea

- Beste Biren kale-agerraldiak: etxegabeen duintasuna aldarrikatzeko ekintzetan parte hartu dugu.
- Nazioarteko egunak: Pobreziaren aurkako Eguna, Etxegabeen aldeko Munduko Eguna, Giza Eskubideen Eguna, Etorkinen Eguna eta Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Eguna. Deustuko Identibuzz proiektuan parte hartu dugu.
- Zurrumurruen aurkako Proiektuko prestakuntza-saioak.



## Boluntarioak

Boluntariotza justiziarekin eta gizarte-berdintasunarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzeko modu bat da. Modu konprometituan, arduratsuan eta desinteresatuan, entitatearen proiektuetan parte hartzen denbora ematen duten boluntarioak ditugu Elkarbanatuzen.

Borondatez parte hartzeak beste begirada bat eta beste tresna batzuk ekartzen dizkiete egiten diren proiektuei. Gainera, kultura-identitate desberdineko pertsonen arteko topaketa eta laguntza bultzatzen ditu, eta ezaupideen trukea eta elkarbizitza sustatzen ditu. Eskerrak ematen dizkizuegu hemendik zuen laguntza eskaintzen duzuenoi, eguneroko inplikazio, prestatzeko gogo, talde-lan eta ekin gogotsuagatik.



# Administrazioaren eta jarraipen ekonomikoaren arloa

## Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsu baten alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatu baten alde ere.

## Administrazio-zerbitzua

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkarrearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkarrearen misioarekin bat datozenak. Halaber, administrazio-zerbitzuak hau egiten du:


- Kontsumo arduratsua eta baliabide materialak aurreztu daitezela sustatzen eta bultzatzen du; horretarako, ingurumen-irizpideak hartzen ditu kontuan.
- Harreman eraginkorra, horizontala eta lankidetzazkoa du hornitzaileekin.

## Kalitate-programa

Arloa orobat arduratzen da elkarrearen kalitate-programa kudeatzeaz.


- Prozesuen mapa baliatzen du.
- Jarduna bideratzen du, etengabe hobetzeko.

16 kalitate-prozesu ari gara garatzen progresiboki:



## Kostu Errealaren Finantziatio-Iturriak

Datu horiek osatze aldera, kostu errealaren finantziatio-iturriak zein diren zehaztuko dugu, eta finantziatio-iturri horiek 2013an kostu errealaren zer ehuneko finantzatu duten adieraziko.



## Kontu-Ikuskapenak

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu, aldian-aldian egin ere, zenbait alderdi ebaluatzeko; hain zuzen ere, gizarte-eraginarekin, kontabilitate-kudeaketarekin eta elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integratzearekin lotutako alderdiak ebaluatzeko. Ebaluazio-mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko; eta, horretaz gainera, tresna apartak dira elkarte-proiektua serioa eta sendoa dela bermatzeko.

### Kontu-Ikuskapen Ekonomikoa:


A-Zeta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.

### Kontu-Ikuskapen Soziala:

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2013an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

### Batzorde Etikoaren Txostena:

Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egin du urtero, eta, txosten horretan, Etika Kodea zenbateraino sartzen den elkartean ebaluatzen.



# Urteko kontuak

Elkartearen 2014ko urteko kontuak aurkeztuko ditugu. Horiek egiteko, indarrean dauden kontabilitate-printzipioak eta -arauak aplikatu ditugu. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

## EGOERA-BALANTZEA 2014ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

AKTIBOA	2014	2013
<b>A) AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>81.464,55</b>	<b>83.768,88</b>
<b>I. IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
Aplikazio informatikoak	2.060,93	2.060,93
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua	<b>-2.060,93</b>	<b>-2.060,93</b>
<b>III. IBILGETU MATERIALA</b>	<b>64.934,00</b>	<b>64.368,33</b>
Makineria	6.115,37	6.115,37
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	61.603,91	54.576,36
Informazio-prozesuetarako ekipoak	41.177,18	34.091,17
Eraikinetako inbertsioak	42.575,40	35.990,19
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	<b>-99.035,46</b>	<b>-78.902,36</b>
<b>VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK</b>	<b>16.530,55</b>	<b>19.400,55</b>
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	10.092,55	12.962,55
<b>B) AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>257.840,48</b>	<b>183.130,16</b>
<b>II. JARDUERAREN ERABILTZAILAK ETA ZORDUNAK</b>	<b>47.153,70</b>	<b>39.422,47</b>
Jardueraren beraren erabiltzaileak	47.153,70	39.422,47
<b>III. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTUAK</b>	<b>194.334,77</b>	<b>116.834,50</b>
Administrazio Publikoak	194.334,77	116.834,50
<b>VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK</b>	<b>1.952,10</b>	<b>2.635,19</b>
Aurrez ordaindutako gastuak	1.952,10	2.635,19
<b>VII. EFEKTIBOA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK</b>	<b>14.399,91</b>	<b>24.238,00</b>
Kutxak	3.313,47	3.984,21
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	11.086,44	20.253,79
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>339.305,03</b>	<b>266.899,04</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014	2013
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>75.419,73</b>	<b>70.894,40</b>
<b>A-1) FUNTS PROPIOAK</b>	<b>75.419,73</b>	<b>70.894,40</b>
<b>II. ERRESERBAK</b>	<b>-15.304,25</b>	
Borondatezko erreserbak	<b>-15.304,25</b>	
<b>III. AURREKO EKITALDIEN EMAITZAK</b>	<b>70.894,40</b>	<b>77.367,96</b>
Soberakina	70.894,40	77.367,96
<b>IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA</b>	<b>19.829,58</b>	<b>-6.473,56</b>
Ekitaldiaren emaitza	19.829,58	<b>-6.473,56</b>
<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>	<b>263.885,30</b>	<b>196.004,64</b>
<b>II. EPE LABURRERAKO ZORRAK</b>	<b>200.297,52</b>	<b>138.805,10</b>
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	113.297,52	138.805,10
3. Epe laburrerako beste zor batzuk	87.000,00	
<b>V. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTZEKO BESTE KONTU BATZUK</b>	<b>57.587,78</b>	<b>45.499,54</b>
<b>1. Hornitzaileak</b>	<b>8.705,68</b>	<b>3.255,14</b>
Hornitzaileak	8.705,68	3.255,14
<b>2. Beste hartzekodun batzuk</b>	<b>48.882,10</b>	<b>42.244,40</b>
Ordaindu gabeko ordainsariak	5,49	0,00
Herri-ogasuna, hartzekoduna kontzeptu fiskalengatik	26.298,31	24.111,02
Gizarte -segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	22.578,30	18.133,38
<b>VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK</b>	<b>6.000,00</b>	<b>11.700,00</b>
Sarrera aurreratua	6.000,00	11.700,00
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>339.305,03</b>	<b>266.899,04</b>

## GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2014ko abenduaren 31n (eurotan emanda)

	2014	2013
<b>A) EKITALDIAREN SOBERAKINA</b>		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik	1.348.110,51	1.247.554,07
a) Bazkide eta erabiltzaileen kuotak	89.414,48	106.149,95
b) Kolaboratzaileen ekarpenak	14.551,20	14.951,20
c) Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzak	1.244.144,83	1.126.452,92
d) Zerbitzu-prestazioak	0,00	0,00
2. Laguntza monetarioak eta bestelakoak	-1.952,50	-6.353,00
5. Errentamenduak eta kanonak	-123.622,97	-139.750,83
7. Langile-gastuak	-954.310,12	-878.066,44
8. Jardueraren beste gastu batzuk	-231.509,99	-207.939,04
9. Ibilgetuaren amortizazioa	-20.626,46	-17.101,23
12. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza	-180,69	-693,30
12 bis. Beste emaitza batzuk	8.995,85	-42,26
<b>A-1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA</b>	<b>24.903,63</b>	<b>-2.392,03</b>
13. Finantza-sarrerak		
14. Finantza-gastuak	-5.074,05	-4.081,53
16. Kanbio-diferentziak		
<b>A-2) FINANTZA-SOBERAKINA</b>	<b>-5.074,05</b>	<b>-4.081,53</b>
<b>A-3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA</b>	<b>19.829,58</b>	<b>-6.473,56</b>
18. Etekinen gaineko zerga		
<b>A-4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAREN SOBERAKINENA</b>		
<b>B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK</b>		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	1.012.625,70	921.597,13
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	228.019,85	204.855,79
<b>B-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK</b>	<b>1.240.645,55</b>	<b>1.126.452,92</b>
<b>C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK</b>		
1. Jasotako diru-laguntza publikoak	-1.012.625,70	-921.597,13
2. Jasotako diru-laguntza pribatuak	-228.019,85	-204.855,79
<b>C-1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK</b>	<b>-1.240.645,55</b>	<b>-1.126.452,92</b>
<b>D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK</b>		
<b>E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK</b>	<b>-15.304,25</b>	
<b>F) ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK</b>		
<b>H) BESTE ALDAKETA BATZUK</b>		
<b>I) ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN GUZTIZKO EMAITZA EKITALDIAN</b>	<b>4.525,33</b>	<b>-6.473,56</b>

### Proiektuen KOSTU ERREALA eta gastu orokorrak:

Elkartearen kostu ekonomikoa "kostu erreala" baino pixka bat baxuagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Oinez Sarea programako Bidean proiektua eta Ondoan proiektua dauden bi etxebizitza doan lagatzea.
- Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak.
- Langileak. Izan ere, kontuan hartu behar dugu boluntarioek onginaldi hutsez egindako lana (laguntza eta administrazio- eta kontabilitate-lanak). Kalkuluaren arabera, 110 ordu lan egin dute, gutxi gorabehera.

### Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada:

Errentamenduak eta kanonak <sup>(1)</sup>	21.600,00
Janaria, garbiketa-tresnak eta bestelakoak <sup>(2)</sup>	1.418,11
Langile-gastuak <sup>(3)</sup>	1.560,00

**GUZTIRA 24.578,11**

(1) Pisu bakoitzeko hileko 600 €-ko alokairua balioztatzen da (2 Ondoan eta 1 Bidean).

(2) Bizkaiko Elikagai Bankuak emandako elikagaiak 1.418,11 €-an balioesten dira.

(3) Langile-gastuak: urteko 110 ordu, gutxi gorabehera.

# Lankidetzaren sareak

Sarean lan egiten dugu, hirugarren sektoreko entitateen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainetan, ekimenetan eta abarretan:



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte



Danok Bizilekua Izatearen eta Aterpe bakoien aldeko Plataforma



Etorikinei laguntza emateko Euskadiko GKE-en koordinakundea



Ekain Sarea - Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarea



Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Zero Pobrezia Kanpaina



Fiare Proiektuari Laguntzeko Euskal Sarea





# Komunikatzeko bideak

www.elkarbanatuz.org



QR kodea:



Jarrai iezaguzu sare sozialetan:



<http://www.facebook.com/elkarbanatuz>



@elkarbanatuz



<http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>



Ohar-etaula digitala:  
Bazkideentzat eta langileentzat:



La Salle ARLEP barrutia:



Aldizkari elektronikoa:



Halaber, egin bat gurekin gizarte-mobilizazioaren bidez:



# Izan gure laguntzaile

## Egin zaitetz boluntario

Guri laguntzeko modu ugari dituzu, eta boluntario izatea da horietako bat. Baikaba eta Hiranka zentroetan lagun dezakezu, hainbat jarduera egiten.

Kultura-trukeko Bikoteka programan parte hartzea duzu laguntzeko beste aukera bat.

## Egin ekarpen bat

### Dohaintza bat

Gure lana egiteko, tresna batzuk behar ditugu (ekipamendua, altzariak, hainbat gauza...), erabiltzeko moduan daudenak. Baliteke zuk soberan duzun hori izatea guk une honetan gure proiektuetako batean behar duguna. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

### Etxebizitza edo lokal baten erabilera uztea

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Haren erabilera uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu. Geuk prestatuko dugu lekua pertsona horiek hartzeko moduan izan dadin, eta gure kontura izango dira hura berritzeko gastuak eta mantentze-lanen kostuak (komunitate-gastuak, hornidurak eta gainerako gastuak). Ez izan zalantzarik, jar zaitetz harremanetan gurekin, eta ados jarriko gara.

### Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa

Aldiroko ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, premiazkoa duten egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jarduerari laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa

- Gure webgunearen bitartez eta kontaktuetaarako formularioez: [www.elkarbanatuz.org](http://www.elkarbanatuz.org)
- E-mail bidez: [voluntariado@elkarbanatuz.org](mailto:voluntariado@elkarbanatuz.org) edo/eta [colabora@elkarbanatuz.org](mailto:colabora@elkarbanatuz.org)
- Telefonoz: 94 475 76 13

